

**DU – BANCO SANTANDER SARIAREN XV. EDIZIOA  
“ZIENTZIA ETA GIZARTE ARLOAN ERAGINA DUEN IKERKETA”  
2019ko DEIALDIA**

Urtarrilaren 20ko 2/2006 Errektorearen Aginduarekin bat, 2019rako Ikerketako DU-Banco Santander Sariaren deialdia egiten da eta oinarriak honako hauek dira:

**ZIOEN AZALPENA**

Zientzia, teknika eta arte arloetako ikerketa garatzea da Unibertsitatearen funtsezko helburuetariko bat. Ikerketaren sustapenak jakintzan aurrera egiten, berritzen, herritarren bizi kalitatea hobetzen eta enpresen lehiakortasuna areagotzen laguntzen du.

Deustuko Unibertsitateak xede hau du, besteak beste: bere espezialitateko arloetan jakintzaren mugak zabaltzea kalitateko ikerketa eginez eta, hala, gizarteari zerbitzu egitea, inguruko arazo eta beharriaz erantzuten ahaleginduz.

Ikertaldeek eta ikertzaileen ahaleginak aitortzeko eta sustatzeko eta horrela lan zientifiko berri horiek gehitzeko eta garatzeko, Unibertsitateak ikerketa sari bat eratzea erabaki zuen, Banco Santanderren laguntzarekin.

Sari horren bidez, Deustuko Unibertsitateak eta Banco Santanderrek irizpide akademikoei jarraituz garatzen den ikerketa bikaina babesten dute, gaur egungo gizartearen erronkei erantzutea helburu izan eta gizarte hori aldatzea eragiten duena. Hortaz, sariak aitortu eta saritu egin nahi du Deustuko Unibertsitateko ikertaldeek egiten duten ikerketa bikaina eta zientzian eta gizartean eragina duena.

**1. artikulua. Erakundea eta deialdia.**

1. DU - Banco Santander Ikerketa Saria sortu da.

2. Saria emateko deialdia urtero egingo du Deustuko Unibertsitateko Ikerketako, Berrikuntzako eta Transferentziako Errektoreordetzak. Deialdia urtearen hasieran egingo da. Hautagaitzak ikasturtea amaitu aurretik aurkeztuko dira. Ebazpena urtearen azken lauhilekoan emango da.

## **2. artikulua. Hautagaiak.**

Sari hau jasotzeko hautagaiak Unibertsitate honetako eta Deusto Fundazioko ikertzaileak edo ikertaldeak izango dira, doktorego ondoko ikerlan original baten emaitza aurkeztu dutenak. Lan hori jakintza arlo horretan eragin akademiko eta sozial handikoa izango da. Hautagaitzatik kanpo geratuko dira azken lau edizioetan saria jaso dutenak.

## **3. artikulua. Hautagaitzen gordailua.**

1. Hautagaitza bakoitzak agiri hauek ekarri beharko ditu:

- a. Saria eskatzeko orria beteta.
- b. Hautagaitzaren memoria labur bat, ikerlanaren ekarpenak nabarmenduz, 4. artikuluan aurkeztu diren balorazio irizpideei dagokionez.
- c. Hautagaiaren eta ikertaldearen curriculum vitae laburra.
- d. Hautagai diren ikerketa proiektuen gizarte eragina ebaluatuko du epaimahaiak. Horretarako *“Deusto Research Social Impact”* Ziguaren deialdiko ebaluazioko inprimakia bete beharko da. Esteka honetan dago eskura: <http://sello-social-impact.deusto.es>. Deialdi honen I. eranskinean ageri dira azaldurik inprimakiaren xehetasunak.
- e. Sarira aurkeztu den edo diren ikerlan argitaratuak edo lanaren emaitzen ebidentziak (akademikoak eta gizarte eraginekoak).
- f. Ikerlanak/ek kanpoko finantzaketa izan badu(te), DEIKERren ziurtagiria ere erantsiko da, erakunde horren bidez izapidetu dela egiaztatzeko.

2. Ikerketa eta Transferentziako Errektoreordetzak egingo ditu kudeaketa administratiboko lan guztiak: deialdi bakoitzerako eskabide orriak prestatu, hautagaitzak erregistratu, dokumentazioa jaso eta kudeaketa administratiboko gainerako zereginak.

#### **4. artikulua. Balorazio irizpideak.**

Sariak baloratuko du proiektuaren bikaintasun akademikoa, baita aldaketa edo gizarte eraginerako orientazioa ere.

Beraz, saria emateko irizpide hauek izango dira kontuan:

- Proiektuaren eragina eta ekarpen akademikoen garrantzi zientifikoa. Argitalpen eta proiektuen bitartez islatu ahal izango da.
- Gizarte eragina honela islatuko da: gizartea aldatzeko egin duen ekarpenean, unibertsitatetik kanpoko eragileekin izandako elkarlanean, eta emaitzek jakintza arloaren aurrerakuntzan eta gizarte zabalkundearen izan duten eraginean.

Ikerketaren gizarte eragina agerian jasotzeak lortu nahi du proiektuak ikerketaren jasotzaile izango den gizarteari begira diseinatzea eta ezartzea eta, ondorioz, emaitzetan agerian jasotzea ikerketa bakoitzak zer eragin lortu nahi duen inguruan.

Horiez gain, accesitaren kasuan, bereziki kontuan hartuko dira justiziaren sustapena bere dimentsio desberdinetan sakontzearekin eta gizarte bidezkoagoa eratzeko konpromisoarekin lotuta dauden lan guztiak, balio horiek defendatzen baititu Deustuko Unibertsitateak.

Horrez gain, epaimahaiak hautagaitza aurkeztu duten ikertzaileen edo ikertaldearen ibilbidea ere balioetsiko du.

#### **5. artikulua. Zuzkidura.**

Sariak 7.500 euroko zuzkidura izango du. Horrekin batera, 2.500 euroko accesita ere eman ahal izango da. Bi sariak mugikortasuneko egonaldietarako, eragineko argitalpenak eta nazioarteko tesiak sustatzeko, biltzarretara joateko, ikertaldearen prestakuntzarako, ekipamendu espezializatua erosteko edo ikerketarekin lotutako beste gastu batzuetarako erabiliko dira, Ikerketa eta Transferentziako Errektoreordetzaren oniritziarekin. DEIKER arduratuko da taldeei emandako aurrekontua kudeatzeaz. Taldeek bi urteko epea izango dute aurrekontu hori exekutatzeko, saria jasotzen dutenetik hasita.

Saria eta accesita eman gabe geratu daitezke, epaimahaiaren ustez, aurkeztutako lanek eskatzen zaizkien baldintzak bete ezik.

Saritutako hautagaiek konpromisoa hartzen dute saria jaso izana aitortzeko ekoizpen eta komunikazio publiko guztietan. Berariazko testu hau txertatuko dute: *“Proiektu honek Deustuko Unibertsitatea – Banco Santander saria jaso du, zientzia eta gizarte arloan eragina duen ikerketari emana, 2019ko deialdian”*.

## **6. artikulua. Epaimahaia.**

1. Deustuko Unibertsitateko errektoreak izendatutako bost kidek osatuko dute epaimahaia, Ikerketako eta Transferentziako errektoreordeak proposatuta. Deustuko Unibertsitateko kideek osatuko dute, gehien bat; baina kanpoko pertsonak ere egon daitezke. Banco Santanderrek kide bat izendatuko du.

2. Epaimahaiko burua Deustuko Unibertsitateko Ikerketa eta Transferentziako errektoreordea izango da.

3. Erabakiak kideen gehiengoz hartuko dira. Berdinketarik gertatuz gero, epaimahaiburuaren kalitateko botoak erabakiko du.

4. Epaimahaiak beharrezko ikusiz gero, batzorde zientifikoak eratuko dira, aurkeztutako lanak hobeto balioesteko.

## **7. artikulua. Sari banaketa.**

Saria ekitaldi publiko batean emango da. Bertan, saria jaso duten taldeen ikerlanak aurkeztuko dira eta gai horiekin lotuta dauden ekonomia eta gizarte erakundeetako eragileak egongo dira gonbidatuta. Saridun taldeek ekitaldi horretan hartu beharko dute parte, saria jaso ahal izateko.

## **8. artikulua. Saririk jaso ez duten lanak.**

Aurkeztu eta saririk jaso ez duten hautagaitzen dokumentazioa epaimahaiak ebazpena eman eta, gehienez, hilabeteren barruan jaso ahal izango da. Hilabetea igarotakoan, suntsitu egingo dira lanak.

Gogoratu saririk jaso ez duten lanak eta *“Deusto Research Social Impact”* zigilua jaso dutenak *“Deusto Research Social Impact Showcase”* bildumara aurkeztu ahal izango direla.

## **9. artikulua. Oinarriak onartzea.**

Sarian parte hartzeak oinarriak onartzen direla adierazten du.

## **I. eranskina – ‘Deusto Research Social Impact’ zigiluaren deialdiaren ebaluazioko inprimakia**

Inprimaki honek jasotzen ditu proiektuek izan dezaketen gizarte eragina monitorizatzeko Deustuko Unibertsitateak definitu dituen hiru dimentsioak. Zigilurako hautagai bakoitzak eman behar du, ebaluazioari begira, dimentsio horietako bakoitzarekin proiektuak duen goi mailako lerroakadura eta betetze mailaren inguruko informazioa, labur-labur. Hargatik eskatzen zaio proiektuaren ikertzaile nagusiari inprimaki honen bitartez erakusteko proiektuaren errealitatea.

- **I. dimentsioa. Proiektuak gizarte eraginean<sup>1</sup> egiten duen ekarpena, bere gai edo arlotik. Proiektuaren gizarte mailako ekarpena, baita [Garapen Jasangarrirako Helburuei](#), [Europako Politikako Lehenetsune](#) eta/edo [Eusko Jaurlaritzaren RIS3 Estrategiari](#) (edo proiektuaren gai nagusiarekin lotuta dauden garrantzizko beste politika batzuei) erantzuteko duen gaitasuna ere. Dimentsio hori gaiaren garrantziarekin, lehenetsunekin lerrokatzeko ahalmenarekin, proiektuak duen aldatzeko eta gizartean eragiteko ahalmenarekin, ekonomiarekin eta/edo politikak formulatzearekin dago lotuta.**
- **II. dimentsioa. Ikerketa proiektuaren garapenean, unibertsitatetik kanpoko eragile ez-akademikoekin batera lan egitea. Irizpide horrek kanpoko stakeholder ez-akademikoekin duen lotura hartzen du kontuan, proiektuaren barruan.**
- **III. dimentsioa. Proiektuak jakintza esparruko aurrerakuntza zientifikotik harantzago egiten duen ekarpena: kanpoko eragile garrantzizkoek emaitzak hartu, erabili eta/edo ustiatu izanaren adierazleak eta helburu izan den taldean emaitzak zabaldu eta balioetsi izanaren adierazleak ematea.**

---

<sup>1</sup> Ikerketaren gizarte eraginaren kontzeptua zentzurik zabalean ulertzen dugu. Barruan sartzen dira ikerketaren emaitza (outputs) edo produktuetatik (outcomes) sortzen diren gizarte, kultura, ingurumen eta ekonomia itzulerak.